

# Garbiketa etxean

**H**ainbat egunez etxeko garbiketa sakon bati ekin eta gero, iritsi naitzen ondorioen bilketa ez zorrotz hau egin dut:

Asko falta zaidala oraindik.

Ez nago prest oraindik urteetan zehar pilatutako nire liburuei uko egiteko, bai ordea paper, folio eta apunte pila bati, garbitzen orduak eta egunak pasa ahala gero eta damu gutxiagoarekin. Amaitutakoan prestago sentitu naiz nire liburuei ere, haien ehuneko txiki bati behintzat, uko egiteko, ordurako gehienak kutxetan ez baleude, eta ni lur jota.

Paper, folio eta apunte horiei gainbegiratu azkarra eman ondoren, begien bistakoa da hortik ez dudala gauza handirik berreskuratzerik izango. Ez dago, konparazione, idazki hau hutsetik egin behar izatetik libratuko nauen material berrerabilgarriarik. Halere, azterketa zorrotzago edo behar larriago baten zain, salbagarriena bereizi dut, hiru karpeta lodi beteta.

Egunkari guztietako ideologia ere horitzen da. Notizia zaharrek –1997ra arteko berripaperak aurkitu ditut armairu goialde batean– oraindik balio dute leihoetako kristalak garbitzeko. Barka diezadatela dagoeneko gure artean ez dauden zutabegileek, ezinbesteko ospetsuek eta legez kanpo utzitako edo porrot egindako kazetek ere.

Lagunak izatea gauza handia da. Entzun nahi ez duzuna esateko prest dagoena da laguna. Dagokigun kasuan: “Ez engainatu heurre burua, hori ez duk sekula putan erabiliko” bezalakoak esango dizkizuna.

Zakarretara botatetik libratzen duzun gauzaki bakoitzari, salbatzearekin batera, isilean kalkulatzen diozu noiz arte salbatzen duzun ere. Atzerapena baino ez dela badakizu. Garbitu ondoren, etxean duzun guztia behin-behinekoa da, guztia, orduz geroztik berri erositakoa izan ezik, hori betirako baita, jakina.



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

Moda, denbora neurgailu gisara behintzat, ez datzala bakarrik, eta beharbada ezta nagusiki ere, jantzietan, nola egiaztatu ahal izan baitut helduentzako aldizkari zaharren sorta txiki bat topatu eta lagun batek, oso iruzkin mamitsuekin, barruan agertutako gizabanako biluziei begira ez besterik, argazkiak zehaztasunez datatu ahal izan dituenen arropa ez beste ezaugarri edo nolakotasunei erreparatuta.

Aurreko puntuarekin lotuta: nire hobespen erotikoen bilakaerak eta material horren (edo oso antzekoaren, edo are hobearren) eskuragarritasun eta doakotasunak –zentzu horretan, ikaragarria da zenbat ordaintzeko prest egon naizen, ez bakarrik dirutan, baita kioskoko saltzaileen aurrean pasatutako lotsan ere bai, haragi inprimatuaren truke, edo, nola begiratzen den, zenbat debaluatu zaigun sexua– ez du saihesten aldizkariok atxiki nahi izatea.

Ez dago auzokide bati susmagarriagoa gerta dakiokenik auzotar bat egun berean behin baino gehiagotan zakarrak ateratzen ikustea baino. Aukera emanez edo izanez gero, hizketan hasiko zaizu eta disimulurik gabe ahaleginduko da solasa zure etxe-aldatze balizkoaren gaira eramaten, hain etsituki, ezen zaila egingo zaizun itxaropentsu ala atsekabetuta galdetzen dizun bereiztea, edo soil-soilik giza naturaren gaineko interes gizatiar bezain natural batek bultzaturik.

Edukiontzitik itzulian, berriro poztu naiz horra ezer pornografikoa bota ez izanaz, auzokideak informazio gehiagi biltzeko edozer gauza egiteko, edonon arakatzeko, prest irudikatzen ahal du dalako.

Garbiketaren emaitzak, dena txukun ikusteak ematen duen atseginaren handiak zerikusi zuzena du garbiketa egon gabe luzatutako denborarekin, pertsona zabarrak egonarri handiko hedonistak baino ez direla sinesterraino. ■